

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski



KRITIKA IBON EGAÑA

# Nora itzuli?

TITULUA: 'ROSA ITZULI DA'

EGILEA: PAKO ARISTI

ARGITALETXEA: EREIN, 2018

**A**BIAPUNTU interesgarria du Pako Aristik 20 urteren ostean argitaratu duen lehen nobelak: Rosa, 25 urte kartzelan pasa ostean, 50 dituela, atera da kartzelatik, Parot doktrina indargabetu ostean. Herrira itzuli eta kalean aurkitu duenak ezer gutxi du ikustekorik bere gaztaroko Euskal Herriarekin: desideologizatuta aurkitu du gizartea, Estatuaren diskurtsoaren logikan sartuta ikusten ditu ETARI sustengu eman ziotenak.

Azken urteotan ETAREN jardunaz eta indarkeria politikoaz jardun duen literaturaren parte bat euskal gizartean etikaren baitan gertatutako mudantza batetik elikatu da: etika iraultzailetik etika indibidualera iragateak dakarren haustura irudikatu dute hainbat nobela euskaldunek (*Mea culpa*, *Zorion perfektua*, *Joan zaretenean*, batzuk aipatzearen). Aitzitik, *Rosa itzuli da*-k gatazkari buruz zein ikuspegi etikotatik ida-

ztea dela dirudi, hots, ETAREN jarduna erakunde iraultzaile baten logika eta etikaren baitan kokatzea. Hala, lehen pertsonan mintzo den Rosa narratzaile eta protagonistak ingurukoei eta irakurleari azalduko dizkie borrokarako motiboak, preso egotearen esanahia edo ETAREN "ekintzek" ikuspegi iraultzailetik luketen zentzua, etika humanistaren ikuspegitik epaitzea zentzugarria litzatekeela adieraziz.

Aurkitu duen errealtatearekiko kontrastean, marko etiko iraultzaile hori berreraikitzea da Rosaren ardura, eleberriarren lehen partean bereziki. Asmo horren zerbitzura daude nobelako pertsonaiak eta beren arteko elkarrizketak, sarritan horregatik sinesgaitz eta behartuxe suertatzen direnak. Aristi artikulugile eta kazetariaren tonua sumatzen da lehen erdian, tesi bat agertu nahi duen idazlearen diskurtsoa, eta testuak nobela forma baldin badu, beharba-

rrian, eta amaren gaztaroari buruzko hari-mutur horiei tiraka, foiletoi-kutsua hartzen du liburuak pixkanaka. Alzheimerraren eraginez amak pasarteak gogoratu eta ahanzten dituen hein berean, egileak hariak erakutsi eta ezkutatzera jolasten du eta irakurleari jakin-mina piztera, horretarako trikimailu ebidente xamarrek erabiliz. Amaren gaztaroa berreraikiz, bere bizitza aurreko belaunaldiek idatzitako patuaren segida dela ulertuko du Rosak.

Aurrez idatzitako patuak, batetik, eta ardura kolektibizatzen duen etika iraultzaileak, bestetik, pertsonaia bera diluitzen dute, eta inpresioa dut Rosa galdu egiten dela tesi-nobelaren eta foiletoiarren artean, eta ez direla pertsonaia gisa izan litzakeen gatazkak baliatzen. Behar bada nobelaren asmoa ez zen Rosaren barne-gatazkak azaltzea, baina ez ote du nobelak, eta nobela errealistak bereziki, pertsonaiaren baita-



Nobela honen asmo nagusia literaturatik eta politikaren esparrutik ia desagertu den etika iraultzai-

## SALDUENAK

### Fikzioa

- 1. Deklaratze horik ez**  
Beñat Sarasola. Susa.
- 2. Kontrako eztairitik**  
Uxue Alberdi. Susa.
- 3. Idazleen gorputzak**  
Eider Rodriguez. Susa.
- 4. Fahirraren ahotsa**  
Harkaitz Cano. Susa.
- 5. Amek ez dute**  
Katixa Agirre. Elkar.
- 6. Aramotz**  
Iñaki Irazabal. Elkar.

### Ez Fikzioa

- 1. Altsasu**  
A. Inbusta, A. Agirrezabal. Txalaparta.
- 2. Nojud naiz, 10 urte eta dibortziatua**  
Nojud Ali, Delphine Minoui. Erein.
- 3. Feminismoa denon...**  
Bell Hooks. Katakarak.
- 4. Txillardegia, batasunaren pentsalaria**